

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Lekuona, Gorostiaga, Lafitte, Villasante, Arrue, Irigaray ta Oleaga euskaltzaiñak. Loidi, Aguerre, San Martin, Arruza, Alvarez Emparanza ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Mitxelena jauna ezin etorri izan da Salamanca-n dalako ango Unibersidadean ikastaro bat emoten.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Oleaga jaunak Bilboko Arriaga Teatroan Euskaltzaindiak egin dauen urteroko jaiaren barri emon dau esanik oso ondo urten ebala guztiak eta orregaitik Irigoyen jaunari eskerrak eta zorionak emon bear jakozala. Jaialdi orretan irabazi dan dirua izan da: 12.827,35 peseta.

Lafitte jaunaren eskabidez Pierre Narvaitz jauna euskaltzain egiten da Jules Moulier (Oxobi) zanaren ordez.

Lau urgazle be izentau dira: Cirilo Arzubiaga, Michel Labéguerie, Justo Garate eta Xabier Peña jaunak.

Henri Gavel euskaltzain ohorezkoaren eriotzearen barri emon da.

Aita Villasante-k diño zer dan Aita Santuari bein bialdu jakon Bibliaz, eta Irigoyen-ek arazo ori zelan dagoen esaten dau: Aita Mauro Elizondo Lazkaoko Beditinoen nagusiaren bidez Aita Santuak erantzun euskunaren barri eldu zan. Eta erantzun ori olangoetan oi dan bideetatik etorrela. Orduan Etxaide jaunak Bilboko apezpiku jaunari karta bat zuzendu eutson orren barri emonik eta pozik gogozala, ori olan bada, Aita Santuaren itza artzeko. Karta ori eskuz esku emon jakon Bilboko apezpiku jaunari. Emoterakoan, bide batez, adierazo eban Monseñor Tardini-k karta bat zuzendu eutsala berari Bibliari egin eutsan euskerazko itzaurreagaitik zorionak emonik. Eta izan be itzaurre ori egitea oso egokia izan dala. Gaiñera adierazo eban igaz erri euskaldunetatik zear ibili danean euskeraz egin datuela berba, eta bere borondatea dala ori Euskaltzaindiari jakinerazotea. Bialdu jakon kartearen erantzunik oraindiño izan eztogun ezkeru Oleaga jaunaren eskuetan isten da jakin daien zertan dan arazo au.

San Martiñek diño Arrate-n erradio barri bat sortu dala euskeraz egiten dauena. Euskaltzaindiaren Laguntzaillez ekin deutso gero eta diño bananduteko joera andiak dagozala jentearen artean eta domeka arratsaldeko lauretan batuko direala Donostia-n, ikusteko ia alde batera itxi leitekezan bananduteko joerok eta bat egin aal dala.

Aita Kaputxino Aurelio Etxarri-Aranaz-koak karta txeratsu bat bialdu deutsa Euskaltzaindiari; baita argitaratu dituzan liburutxo bi be. Liburutxoak *Bederatziurren bearrezkoenak eta eleiz otoi batzuk* eta *Meza Saindua* dira. Pozik artu dira eta eskerrak emon bekioz.

Pariseko "Euskal Kulturaren Alde"-k karta bat bialdu dau atondu daben "Ipui-Sariketa"-ren agiri bat **Euskera** aldizkarian argitaratu daitela eskatuz. Oraingoz **Euskera** ezta argitaratuko eta egiten danerako erabagia artuta izango dabe eta a argitaratu leiteke. Olan jakinerazo bekio.

M. Jaureguiberry andreak bialdu dituen disko bi artu dira umeen eskoletan erabiltekoak, eta Lafitte jaunak ango barri emon dau.

Arruza jaunak idazki bat irakurri dau. Bertan esaten da euskerearen aldeko betasun bat sortu gura dabela. Baiña gai astuna dan ezkerero astiro astiro aztertu beitez bere zertzeladak erabagi egokiak artzeko.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.